


GAUZAK GARBIAGO AURKITU DITUT



Txillardegi berriz Euskal Herrian

Beti ikasten, Kaliforniara joan zitzaigun Txillardegi urtebeterako, ikastera. USAra. Dena haundia, mitoa, mundu berria, gure benetazko nagusia,...

Kronika ederrik bidali digu haruntza joan zenetik. Eta hala ere gauza gehiago kontatu diezaigun nahi dugu. Urrezko agertzen zaigun munstro hark benetan buztinezko hankak dituela geure buruari sinest arazi ezin diogulako-edo.

Gazte aurkitu dugu Txillardegi, beti bezala. Lan egiteko amorratzen, beti bezala.

ARGIA.- Hitz gutxitan azaldu nahi izanez gero, zer esango zenuke Estatu Batuetan aurkitu duzun giroaz?

TXILLARDEGI.- Estatu Batuek iritzi orokor bat emateko, denbora luzeago pasa behar litzateke han, jende mota gehiago gurutzatu, ingelesa hobeki menderatu, eskualde gehiagotan barrena ibili. Ez dakit nola esan. Estatu Batuetan 220 milioi biztanle bizi dira, eta Los Angeles-tik New York-era 5.500 km. daude: 25 aldiz Bilbo-Donostia; joan-da-etorria, ja-

kina... Nik Los Angeles ezagutu dut: zazpi milioi terdi biztanle, 130 km. luze eta 80 km. zabal... Ez dakit konturatzen zareten. Beharbada hiri txikiagoetan giroa hobea da, gizatarra goa nolazpait esateko. Los Angeles, dena dela, munstro bat da. Edozertarako kilometro pilo egin behar, eta kotxez egin behar (edo autobusez, autobusa dagoenean!). Ikaragarria da, benetan. Metrorik ez dago, eta trenik ere ez (Hegoalderantz ez bada). Kalera atera; eta, nahiz egu-

raldia oso maiz bikaina izan, halako garaje-pufara nabaitzen da normalean. Ez da itxura bakarrik: «un-healthy» maila (= osasunaren aurkakoa) askotan iristen da udan.

ARGIA.- Bai. Horrelako zerbait kondatu zenuen joan den urtean, bai. Baina zu Hizkuntzalaritza, Linguistika alegia, ikastera joan zinen, ez da? Eta ikastearen aldetik, zer diozu?

TXILLARDEGI.- Hango Unibertsitatean ikasi egiten da, eta erruz eta gogoz ikasi. Honetaz ez dago dudarik. Asteburuak ere ikasten pasatzea, guztiz normala da ni egon naizen U.C.L.A.-n; baina normala bide da Unibertsitate guztietan. Eta denek ikasten dute, ez banaka batzuek bakarrik. Ikasleak langile porrokatuak dira; eta ez ikastea, ezinezkoa da. Eta ia-ia atsedendirik gabe lan egiten da. Guztiz gogor. Irakasleek, era berean, ikasi eta ikertu egiten dute: nor bere sailean, egiakzi azkeneko ikerketen mailan egoten saiatzen dira. Liburutegiak gaitzak dira (4 milioi liburu UCLA-ko Liburutegi Nagusian), eta liburuak benetan daude

ikasleen eskuetan: bai bertan irakurtzeko, bai etxera eramateko.

ARGIA.- Jendeak, beraz, ikasi besterik ez du egiten.

TXILLARDEGI.- Hor nonbait! Ameriketako gizartea teknokratikoa da erabat. Eta garaitzeko bide bakarra, tektokrazia horretan leku bat bilatzea duzu. Garaitzea, bestalde, **do-larretan** neurtzen da. Dirurik irabazten ez duena... ba, tontoa den seinale! Balio duenak, amerikarren ustez, garaitzen baitu teknokrazi-sistemako sail honetan edo hartan. Ingelesez **guztiz** ondo ez dakiena, eta **dirurik** irabazten ez duena (diru dexente, alegia), **tontoa** den seinale. Estatu Batuetan **garaitu** egin behar da; garaitzea posible baita, omen, tontoa ez izatekotan (edo-ta alferra, jakina).

«Los Angeles: zazpi milioi t'erdi biztanle, 130 km. luze eta 80 km. zabal... Ez dakit konturatzen zareten».

ARGIA.- Mito galanta...

TXILLARDEGI.- Noski! Baina amerikatarrek hori sinesten dute, eta USA-ko demokrazia bezalakorik ez dagoela munduan ere bai. Askatasunari dagokionez, zer esanik ez: askatasuna han dago. Komunismoan, berriz, ez dago askatasunik. Eta sozialismoa... mozorrutako komunismoa besterik ez da. Mitterrand «kripto» bat besterik ez da. Eta Fraitzia gainbehera doa azkar: ekonomia gaizki, eta askatasuna okerrago. Reagan ondo ikusia da. Baina ekonomiaren egoera txarra da; eta honek galduko du. Ez inolaz ere Reaganen eskuindarkeria amorratuak.

ARGIA.- Hala ere, orain dela gutxi manifestazio gaitz bat izan da New York-en iskilu nuklearren kontra.

TXILLARDEGI.- Bai, egia da. Indar nuklearraren kontrako joera, azkartuz doa Estatu Batuetan. Diablo Canyon gelditua da. Baina San Onofre ere bai (Kalifornian beti). Eta gero eta beldur handiagoa dago han nuklearri buruz. Baina hauxe da kontzientzi sail bakarra. Bakarra ez: El Salvador, «another Vietnam» han esaten denez, kezka iturria da: gazteek ez dute, Saigon-en bezala, alferrik hil nahi. Ikuspegi hau triste da, jakina; baina ez dute gerrarik nahi.



Eta El Salvador, Guatemala, Nicaragua, gerra-iturri iruditzen zaizkie.

ARGIA.- Baina ez al dute ikusten herri horien zapalketa osoa?

TXILLARDEGI.- Ez dut uste. Propagandak esaten duenez (eta han propagandarik merkeena da nagusi prentsan eta telebistan) **Amerika-Erdian «komunismoa» ari da nagusitzen: Errusia eta Kuba.** Castro-ri tenedorea baizik ez zaio falta deabrua bera izateko. «Vade retro»! Sandinistak **Errusiaren** eta **Kubaren** aintzindaritzza baizik ez dira. Nicaraguan, gainera, jakina denez, «askatasunik ez dago». Eta, bapatean, «Comandante Cero» da askatasun horren eredu...

ARGIA.- Eta chicanoak zer?

TXILLARDEGI.- Oso nekez uler daiteke hemendik txikanoen arazoa. Jakina, hizkuntzaren aldetik antza badu txikanoen arazoak gurearekin. Baina txikanoek ez dute (oro har, jakina) txikano izan nahi. Izkutatu egiten dute beren txikanoetasuna. Hemen orain dela mende bat ikusten zena gertatzen zaie: españolez mintzatzea irain bat iruditzen zaie: «¿A qué vienen esas confianzas?». Txikanoak eta gainerako «latino»ak, bestalde, egoera berdintsuan daude; eta bertako parrak dira, indioak eta beltzak bezala. Ez legez, ez beti. Kontuz. Los Angeles-ko alkatea beltza da, esate baterako. Baina **diglosia, are arrazakeria** ere, oso nabarmen daude Los Angeles-en.

ARGIA.- Auzo berezitan bizi dira, beraz?

TXILLARDEGI.- Legez ez, jakina. Baina «East Los Angeles» eskualdean, gehhiengoa dira hispanofonoak. Hark Mexiko ematen du. Baina UCLA-ren inguruetan, Beverly Hills-en edo Santa Monica-n ez da horrelakorik gertatzen. Pratikan, beraz, auzo bereziak daude. Guztiz. Autobusetan, esaten baterako, española da nagusi. Baina UCLA-n egunero argitaratzen den «Bruins» egunkarian, sekula ez dut artikulu bakar

«Reagan ondo ikusia da. Baina ekonomiaren egoera txarra da; eta horrek galduko du. Ez bere eskuindarkeria amorratuak».

bat ikusi españolez... Nahiz Los Angeles-ko erditsua hispanofonoa izan. «La Opinión» egunkaria, horretara, txiroen eta gizarajoen egunkaria da. Jende dotoreak «Los Angeles Times» irakurtzen du...

ARGIA.- Hizkuntza da klase-erazgarria, beraz...

TXILLARDEGI.- Han ingelesez «oraindik ez dakiena»... ba, esan dizudan bezala, berak jakingo du zergatik den. Baina tonto seinale garbia da... Txikanoak, beraz, ingelesez ez

dakitenean, tontoak, alferrak, lapur-
 rrak, eta abar. Ziur. Ingelese**z ongi** ez
 dakienak, **jai** dauka. **Baina osoki jai**.
 Ez Euskal Herrian bezala... «arinaiz-
 tarrak», «por razones operativas»,
 eta abar. Ez. Hizkuntza ez dakiena,
kito. Asimilatze**ko** eta ingelestze**ko**
 joera, beraz, guztiz azkarra da: lati-
 noek, txikanoek, eta hispanofonoek,

«Los Angeles-ko alkatea
 beltza da. Baina diglosia,
 are arrazakeria ere, oso
 nabarmen daude Los An-
 geles-en».



integratu egin nahi dute. Ez dute ai-
 patu ere nahi beren txikanotasuna.
 Desnaziotartu egin nahi dute, ahalik
 eta azkarrenik. Eta, normalean, gura-
 soek ez diete española irakasten seme-
 alabei. Zertarako «lacr» hori?
 «Lacr» bakarrik ez: español-doinu-
 ak berak, kalte baizik ez baitu ekar-
 tzen. Hispano-tasuna? **Ahaztu**. Beste-
 rik ez.

ARGIA.- Eta euskaldunak han?

TXILLARDEGI.- Gauza bera.
 Etortzerakoan, eta jadanik hiruga-
 rren aldiz. Boise-etik pasa nintzen.
 (Los Angeles-ko Chino-ra ez naiz
 azaldu; iristean Euskal Etxera bidali
 nuen agur-eskutitzak erantzunik ez
 baitzuen merezi izan...). Hango «eus-
 kaldunak»? Helburu bakar bat: ez
 dezatela gure seme-alabek ezagu, guk

ingelesarekin ezagutu dugun infer-
 nua. Etxean ingelesez, eta kito. Eus-
 kara zertarako? Txikanoek gaztela-
 nia ahaztutzen badute, zertarako
 nahi ote lukete euskaldun jatorrizko
 amerikatarrek euskara kaiku hau?
 Zertarako? Zertarako hemen bertan
 folklorekeriatik irten ezinik hiltzen
 ari delarik? Hango «amerikanuek»...
euskalduntasuna ahaztu. Horra hel-
 burua. Integratu, integratu, eta inte-
 gratu. Bestetasunaren ifernuari laga,
 eta «besteak bezalakoa» izan. Ez dut
 uste berezkuntza asko egin daiteke-
 nik Amerika osoan (Hego Amerika
 barne, jakina beste modu batera). Ez
 dago «Segunda Euzkadi»rik. Ezetz!

**ARGIA.- Eta hemen nola aurkitu
 duzu gauza?**

TXILLARDEGI.- Hobeto ez nuke
 esango. Baina garbiago bai. Lan urte
 garratz honetan, mozorroak erori
 dira, eta nor zer den eta nora doan
 garbi ikusi da. 1975-an ez zen ikus-
 ten. Nik konfiantza osoa dut: **abert-
 zale ez diren indarrak, behera joango
 dira**; nahiz euskal siglak eraman.
 Abertzaleek aurrera egingo dute.
 Zazpi urtez ikusi eta ikasi dugunak,
 bere fruitua ekarriko du. Eta fruitua
 hau baizik ezin izan: abertzaletasuna
 eta berjabetasun-nahia, gora. Beste-
 lako «rollo»ekin etorriko direnak,
 bestetan bezala, eta azkarkiago
 agian, putzura. **«Gora Euskadi Aska-
 tuta»** oihiak, geroz eta etorkizun
 handiagoa du. Nik ez dut dudarik
 egiten. Eta **Calvo Sotelok ere ez**.

«Hango «euskaldunak»?
 Helburu bakar bat: ez de-
 zatela gure seme-alabek
 ezagutu, guk ingelesarekin
 ezagutu dugun infernua.
 Etxean ingelesez eta kito.»

Gure arteko «rollo»arenek ez dute
 oraindik sinesten... Burugorrrak
 dira gizaraioak. Herriak erakutsiko
 die bidea ostikoka... Besteie buruz,
 berriz, zer esango? Gure arazoa egu-
 rra emanez eta LOAPA-k onarrera-
 ziz zapaldu nahi gaituztenez... erant-
 zun bakar bat bururatzen zait: **Gora
 Euskadi Askatuta!** Baina bihotzez,
 pratikaz, eta hizkuntzak ez bestek
 eman dezakeen oinarri sendoz.

